



Irakurmena

Egitekoa

Irakurri testua, eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

—I. TESTUA—

Reset

ASPALDI ikasi nuen ordenagailua izorratuz gero, irtenbidea ez dudala aurkituko haren tripa eta karpeta ezberdinetan arakatzen. Aspaldi ikasi nuen teknikari bati deituz gero, honek egingo duen lehen gauza ordenagailua itzali eta ondoren berriz piztea izango dela.

Hain erraz eta basikoa den irtenbidea eraginkorrena izaten da gehienetan. Itzali eta piztu.

Honela, esan dezaket konputagailuak konpontzen dituzten teknikarietako esker ikasi dudala bizitzan askotan “reset” botoia zapaldu beharra dagoela, bizitza berrabiarazi (=reinciar) behar dela askotan, aurrera egiten jarraitzeko, indar berriak aurkitzeko. Gure ingurua etengabe aldatzen doa, baita gu geu ere, inoiz ez gara berriz atzo izan ginena izango, eta, hala ere, egunero mundua leku berean balego bezala eta gu pertsona bera bagina bezala funtzionatzeko. Edo funtzionatu nahi dugu, baina zailtasunak aurkitzen ditugu, ameskeria baita dena beti berdina izango dela pentsatzea.

Ama larriki gaixotu zaio lagun bati, eta, haren ezinegonaren ikustean, pentsatu dut haren urduritasunaren erdia amagatik sentitzen duen kezka sorrarazi diola, baina beste erdia badela, hein handi batean, ez delako gai onartzeko bizitzaren etapa berri batean sartu dela. Laguna ernegatuta dago ezin duelako onartu bere ama, aurrerantz, ez dela izango familiako kide guztien zaindaria (fisikoa edota espirituala), beti izan den bezala; ezin duelako onartu amak bera behar duela orain, ez bakarrik konpainia egiteko, orain arte izan den bezala, baizik eta bizirauteko. Ume txiki bat balitz bezala.

Reset. Laguna ikusten dudana hurrengoan reset botoia zapaltzeko gomendatuko diot. Itzali dezala une batez makina, minutu batzuetan berriz pizteko, bidean zerbait galtzeko arriskua onartuz.

Bizitza uneoro berrabiarazten baita, egunero aldatzen baita, eta batzuetan beharrezkoa baita berriz hasia, errealitate berri batean sartzen zarela onartzeko. Makina itzali eta berriz piztea.

Karme Jaio
Deia, 2018/12/14
(Probarako moldatua)

—I. TESTUA—

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

Adb.: 0. Zer ikasi zuen aspaldi Karmelek ordenagailuen konponbideez?

- a. Ez dela aditua informatikan.
- b. Ez duela merezi teknikari bati deitzea.
- c. **Konponbide eraginkorrena errazena izan ohi dela.**

1. Zer adierazi du teknikarietako buruz Karmele Jaio?

- a. Haiekin esker ikasi duela ez dela gomendagarria konputagailuetan “reset” egitea.
- b. Ideia bat eman diotela benetako bizitzarako.
- c. Eguneroko bizipenietako esker ikasi dutela konputagailuak berrabiarazten.

2. Zer aipatu du Karmele Jaio gure inguruz?

- a. Aldakorra dela.
- b. Geuk aldatzen dugula.
- c. Zaila dela aldatzen.

3. Zergatik funtzionatzeko modu okerrean?

- a. Amets gehiegi ditugulako.
- b. Denok berdin pentsatzen dugula uste dugulako.
- c. Kostata konturatzen garela bizitzan aldaketak gertatzen direla.

4. Zer pentsatzen du Karmele Jaio lagun bati gertatutakoaz?

- a. Jarrera lasaia hartu duela amaren gaixotasunaren aurrean.
- b. Haren urduritasunak ez duela zerikusirik amaren gaixotasunarekin.
- c. Bizitzaren etapa berriari egokitzea kostatzen ari zaiola.

5. Zer aholku emango dio lagunari, bizitzari egokiago aurre egiteko?

- a. Bizitzaren karga astunak bazterrean uzteko.
- b. Inguruan gertatzen ari zaizkion aldaketak kontuan hartuta jokatzeko.
- c. Errealitatea aldatu arren, berak betiko moduan jokatzeko.